

Iñaki Barcena

EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

Fukushima

B agenekien tsunami hitza Japoniatik zetorrela, oraingo berri txarren antzera. Fukuyama sumendi elurtuaren irudia ere txikitatik ezagutu genuen. Aldiz, aste haue-tan gure begietara datozen irudi krudelak izen berri batekin loturik datoz: Fukushima. Eta burura datorkigu arma nuklearra-ren lehen erabilpenaren lekua, Hiroshima hain zuzen. Truman presidente demokra-taren aginduz hiri honi egokitu zitzaion eraso nuklearra. Eta ezin dugu ahaztu, japoniarrek are gutxiago, fisio nuklearra-ren lehenengo intentzioa jendea modu masiboan hiltzea izan zela. Geroxeago “bakerako atomoak” asmatu zituzten, baina zapuzketa ederra hartu zuten sobietarrek fisio nuklea-rraren teknologiaran domeinua iragarri zutenean.

TXERNOBYL. 25 urte dira (api- rilaren 26an) Ukrainiako zen- tral nuklear horretan inoiz izandako istripu nuklear larrie- na gertatu zela. Nola ahaztu bertan bizitza eman zuten 6.000 langileak, ihes erradioak- tibo hiltzailearen gainean harea, porlana eta bestelako materialak jaurtiki zituztenak, iodo eta zesioaren isuriak gel- ditu arte. Inork ez du ukatzen giza-errakuntza sakona izan zela, baina mendebaldeko ana- listentzat sistema sozialista



IÑIGO AZKONA

burokratikoan soilik gerta zitekeen horre- lakorik. Eta Windscale (1957), Harrisburg (1979) edo Tokai Mura (2000) ere Gorba- txoven lagunen akatsengatik gertatu al ziren? Txernobyleko gertakizun larriek eragin zuzena izan zuten Sobietar Batasu- naren gainbehera politikoan, nire aburuz.

GAROÑA. Kasualitatea dirudi, baina Fukushima erreaktore bat Garoñan dagoenaren berdina da, General Electric enpresak egindakoa eta urte berean, 1971n martxan jarritakoa. Hondatu zen lehenen- goa, baita jarraian jarritako besteak ere. Galdera asko dugu erantzun gabe, baina jasotako kolpea, munduko ekonomia eta

teknologian bigarren edo hiru- garren postua duen herrial- dean, irakasgai ahaztu ezina izango dugu. Fukushima kutsadura erradioaktiboa gugandik urrun dabil baina jakin badakigu eztabaida eta politika energetikoak hemen- dik aurrera Fukushiman dutela gairaditzeko asignatura bat. *Black out* –itzalketa– gertatu da, lurrikara eta tsunamiaren atzetik, ustekabekoa eta bene- takoa, oso. Energia nuklearra- ren aldekoen kalkuluetan kabi- tzen ez zena gertatu da. Horregatik Euskal Herriaren ondoko zentralak 40 urte bete dituenean berriz diogu: Garoña itxi orain! ■

«
Energia nuklearren aldekoen
kalkuluetan kabitzen ez zena gertatu da.
Horregatik Euskal Herriaren ondoko
zentralak 40 urte bete dituenean
berriz diogu: Garoña itxi orain!
»

EUEDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Zabalgune Plaza, 5
48009 Bilbao
☎ 94 423 1500
Faxa: 94 424 3947
eudel@eudel.net

www.eudel.net